



AGINDUA, SEGURTASUNEKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ ERABAKITZEN BAITA HASIERA EMATEA EUSKAL ZIBERSEGURTASUN AGENTZIAREN ESTATUTUAK ONARTZEN DITUEN MARTXOAREN 19KO 34/2024 DEKRETUA ALDATZEKO PROZEDURARI.

Esp. DNCG_DEC_4027/25_07

ELN-DCG-006/2025-XXX

Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak (aurrerantzean, XOEPL) arau hau bezalako arauak egiteko prozedura arautzen du, eta 12.1 artikuluan ezartzen du prozedura horiek gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko direla.

Agindu honetan aipaturako prozeduraren antolamenduak, hasieratik bertatik, araua egitearen egokitasunari buruzko erabakia hartzea eskatzen du, bai eta arauaren beharrari eta bideragarritasunari buruzko gogoeta egitea ere.

XOEPLren 13.1 artikulua ezartzen du hasteko aginduak eduki hau izango duela:

LEHENENGOA. Prozedura hastea eta hasiera agintzeko eskumena.

- Agindu honen xedea da martxoaren 19ko 34/2024 Dekretuaren bidez onartutako Euskal Zibersegurtasun Agentziaren estatutuak aldatzeko dekretu-proiektua egiteko prozedura hasteko agintzea.
- Prozedura hasteko agindua emateko eskumenari dagokionez, XOEPLk 12.1 artikuluan ezartzen duenez, «*xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da*».

Arauaren xedea Euskal Zibersegurtasun Agentziaren estatutuak aldatzea denez, eta agentzia hori zuzenbide pribatuko erakunde publikoa denez, Segurtasun Saileko titularraren bidez segurtasunaren arloko eskumena duen sailari atxikia, Segurtasun Sailak du eskumena. Beraz, prestatzeko prozedura Segurtasuneko sailburuaren agindu bidez hasi behar da.

Orrialdea: 1 / 12





Gainera, kontuan hartu behar da, Euskal Zibersegurtasun Agentzia sortzeko ekainaren 29ko 7/2023 Legearen 5.e) artikulua arabera, Euskal Zibersegurtasun Agentziaren Administrazio Kontseiluari dagokiola «Agentziaren estatutuak eta haren antolaketari eta funtzionamenduari buruzko gainerako arauak onartzeko eta aldatzeko proposamena egitea, Eusko Jaurlaritzari helarazteko». Bestalde, arau beraren 9. artikulua ezartzen duenez, «Agentziaren estatutuak Eusko Jaurlaritzak onartu behar ditu, dekretu bidez».

BIGARRENA. Proiektuaren xedea eta helburua.

Dekretu-proiektuaren xedea da Euskal Zibersegurtasun Agentziaren estatutuak onartzen dituen martxoaren 19ko 34/2024 Dekretuaren aldaketa onartzea, aldaketa hauek eginez:

1. Agentziari eginkizun berri bat esleitzen zaio: informazio-sistemen auditoretzak egitea, Agentziaren jardura-eremuaren barruan, hau da, euskal sektore publikoaren barruan.

Horrela, Agentziak Segurtasun Eskema Nazionalak (Segurtasunaren Eskema Nazionala arautzen duen maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuaren 31. artikulua).

2. Administrazio Kontseilua eta Kontseilu Aholku-emailea osatzen duten pertsonek beren ordezkari maila bereko beste pertsona baten esku uzteko aukera sartzen da, eta, horrela, eraginkortasun eta malgutasun handiagoa lortuko da organo horien funtzionamenduan.

HIRUGARRENA. Arauaren bideragarritasun juridikoa eta materiala.

Dekretu-proiektua Euskal Zibersegurtasun Agentziaren estatutuak aldatzean datza. Estatutu horiek martxoaren 19ko 34/2024 Dekretuaren bidez onartu ziren. Azken dekretu horren jatorria Euskal Zibersegurtasun Agentzia sortzeko ekainaren 29ko 7/2023 Legearen 9. artikuluan ezarritako aurreikuspena da, zeinak xedatzen baitu Eusko Jaurlaritzari dagokiola Agentziaren estatutuak dekretu bidez onartzea.

Euskal Zibersegurtasun Agentzia sortzeko ekainaren 29ko 7/2023 Legearen 5.e) artikulua eta Euskal Zibersegurtasun Agentziaren estatutuak onartzen dituen martxoaren 19ko 34/2024 Dekretuaren 13.e) artikulua estatutuak aldatzeko aukera aurreikusten dute, eta

Orrialdea: 2 / 12



Agentziaren Administrazio Kontseiluak proposatu eta Gobernu Kontseiluak onartu beharko du.

Kontu-ikuskaritzaren funtzioari dagokionez, egungo estatutuek aurreikusten dute barne-antolaketaren barruan kontu-ikuskaritzaren arlo espezifiko bat egongo dela (16.d), baina sorrera-legean eta estatutuetan ez da funtzio horren garapenari buruzko aipamenik jasotzen. Horri dagokionez, Euskal Zibersegurtasun Agentzia sortzeko ekainaren 29ko 7/2023 Legearen 2.2 artikulua – estatutueta 7. artikuluan jasotako edukia –, garatuko dituen eginkizunak zerrendatu ondoren, (u) apartatuarekin ixten du zerrenda, eta honako hau xedatzen du:

"Indarrean dagoen legeriak ematen dion edo espresuki eskuordetzen edo esleitzen zaion beste edozein eskumen".

Bestalde, Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuaren 31. artikulua informazio-sistemen auditoretzak aldizka egiteko betebeharra ezartzen du, Segurtasun Eskema Nazionalaren eskakizunak betetzeko.

Agentziaren Administrazio Kontseilua eta Kontseilu Aholku-emailea osatzen duten pertsonen ordezkartza beste pertsona bati, baina maila berekoari, eskuordetzeko aukerari dagokionez, aurreko apartatuan aurreratu den bezala, kideen bertaratzeko ezintasuna ordeztzeko beharri erantzuten dio.

Testuinguru horretan, Euskal Zibersegurtasun Agentziaren Administrazio Kontseiluak erabaki du Gobernu Kontseiluari proposatzea estatutuak alda ditzala, aurreko apartatuan azaldutako baldintzetan.

Proiektatzen duen arauak, gainera, agerian uzten du Autonomia Estatuaren 10.2 artikulua Autonomia Erkidegoari ematen dion autoantolaketarako ahala, autogobernua instituzionalizatzeko eta administrazio autonomikoa osatzen duten organo, administrazio-unitate edo entitateak sortu, aldatu eta ezabatzeko organoak arautzeko.

LAUGARRENA. Ordenamendu juridikoan izango duen eragina.

Xedapen orokor bat da, Euskal Zibersegurtasun Agentziaren estatutuak onartzen dituen martxoaren 19ko 34/2024 Dekretua aldatuko duena, eta ez da bestelako aldaketarik edo eraginik aurreikusten beste araudi batean.

Orrialdea:3 /12



BOSGARRENA. Generoaren araberako eragina.

Izapidetzen ari den arau-proiektuak antolaketa-izaera du funtsean, eta indarrean dagoen eta emakumeen eta gizonen egoerari dagokionez funtsezkoa ez den arau bat aldatzera mugatzen da.

Agentziaren eginkizun berriak ez du inolako eraginik emakumeen eta gizonen egoeran; izan ere, informazio-sistemen auditoretzak egiten dira, eta hori segurtasun informatikoko eginkizun teknikoa da.

Kontseilu Aholku-emaileko kideen ordezkariak eskuordetzeari dagokionez, artikuluetan aurreikuspen bat sartu da, haren osaerak emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izan dezan, gaikuntza, gaitasun eta prestakuntza egokiarekin.

Administrazio Kontseiluari dagokionez, kontuan hartu behar da erabaki zela haren osaera kargu jakin batzuei lotuta egotea, eta, beraz, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 3.10.d) artikuluan jasotako aurreikuspena aplikatu behar da, EAEko botere publikoen jarduketara gidatu eta bideratu behar duten printzipio orokorrei buruzkoa. Aipatutako artikuluen arabera:

"Dagokion organoko kideak karguaren arabera izendatzen direnean edo izendapen hori instituzio edo erakunde batek baino gehiagok egin behar duenean. Halakoetan, ordezkariak orekatuaren irizpideari eutsi beharko zaio, erakunde berak izendatutako pertsonen taldeari dagokionez, aurreko ataletan bildutako kasuetako bat aplikatzekoa denean izan ezik".

Beraz, ez da egin behar Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 20. artikuluan aurreikusitako generoaren araberako eraginari buruzko txostenik (testu bategin hori martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen); izan ere, Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiaren bidez onartutako lehenengo jarraibideko 2.1.b) eta d) apartatuetan ezarritako salbuespena aplikatu behar da, generoaren araberako eragina ebaluatzeari eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzkoa. Gidalerro horren 2.1 atalaren arabera, xedapen orokorren proiektuek, hau da, lege- edo erregelamendu-mailako arau



juridikoen proiektuek, generoaren arabera eraginari buruzko txostenarekin batera joan behar dute, honako hauek izan ezik:

b) *"Funtsean antolaketa-izaera dutenak [...]"*.

d) *"Indarrean dauden arauak aldatzea xede dutenak, aldaketa funtsezkoa ez bada emakumeen eta gizonen egoerari dagokionez"*.

Horri dagokionez, indarrean dauden Estatutuei buruz bere garaian Emakundek egindako txostenean berretsi zuen erregulazioak ez zuela emakumeen eta gizonen egoeran eragiteko gaitasunik edo gaitasun txikia zuela, *"aurkeztutako estatutuek lehen aipatutako alderdiak arautzen dituztelako soilik, eta funtsean antolaketa-izaera duen dekretu-proiektua delako; beraz, generoaren arabera eraginari buruzko txostena egiteki salbuetsita dagoela uste da"*.

SEIGARRENA. Aurrekontuan izango duen eragina.

Espedienteari memoria ekonomiko bat erantsiko zaio, eta, memoria horretan, proiektatutako arauak izango duen kostuaren zenbatespena adieraziko da, gastuak zenbatuta eta arau hori aplikatzeak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan izango duen eragina adierazita, bai eta finantzaketa-iturriak eta -moduak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ekonomia- eta araudi-kontrolaren gaineko arauak zehaztutako beste alderdi batzuk ere, hori guztia XOEPLren 15.5 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

ZAZPIGARRENA. Egin beharreko izapideak eta txostenak.

XOEPLren 13.1.e) artikuluan ezarritakoaren arabera, prozedura hasteko aginduan adieraziko dira gaia dela-eta bidezkoztat jotzen diren izapideak eta txostenak. Kontuan hartu behar dira, halaber, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56. eta 57. artikuluetan ezarritako prozedura-berezitasunak, aurrekoa aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2016 Legeak sartutako aldaketen ondoren, Eusko Legebiltzarrerara bidaltzeari dagokionez.

Dekretu-proiektua idazteko, hasiera-agindu honen edukia hartuko da kontuan, eta kontuan hartuko dira bilatzen diren helburuetara ondoen egokitzen diren aukerak, bai eta aurreikusitako araudiaren egokitasuna eta legezkotasuna bermatzeko beharrezkoztat jotzen diren kontsulten emaitzak ere.



XOEPLren 14.5 artikularen arabera, testua bi hizkuntzetan idatzi behar da, araua idazteko prozesu osoan zehar hizkuntza-bertsioak egitean bi hizkuntzen arteko berdintasuna bermatuz. Testuak bi hizkuntzetan idatzita egon beharko du, aldez aurreko onarpena jaso eta instrukzio-fasean izapidetu aurretik. Era berean, testua hizkuntzaren erabilera ez-sexista eta inklusiboa eginez idatzi behar da.

1.- Dekretu-proiektua idatzi aurretik, ez da beharrezkotzat jotzen aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea egitea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan (aurrerantzean, APAPPEL) eta XOEPLren 11. artikuluan aurreikusitakoa, zeinaren helburua baita etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuen eta haien erakunde ordezkagarrienen iritzia jasotzea, araua, funtsean, antolamenduzkoa baita.

2.- Agindu honen bosgarren atalean adierazitakoaren arabera, ez da generoaren araberako eraginari buruzko ebaluazio-txostenik sartuko, Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiaren bidez onartutako genero-eraginaren ebaluazioa egiteari eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzko Lehen Jarraibidearen 2. ataleko b) eta d) salbuespenak biltzen baitira.

3.- Arau-eraginaren azterketari buruzko memoria bat egingo da nahitaez. Memoria horrek, hasteko aginduari dagokionez, proposamena egin duen organoaren iritziz garrantzitsua izan daitekeen edozein alderdi jaso edo errepikatu beharko du, eta, nolana ere, XOEPLren 15. artikularen 3. apartatuak aipatzen duen edukia. Memoria horrek dekretu-proiektuaren azterketa juridikoa jasoko du.

4.- Espedientean hurbilketa bat dago aurrekontuetan izan dezakeen eraginari buruz, Euskal Zibersegurtasun Agentziak emana, XOEPLren 13.2.d) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hala ere, beharrezkotzat jotzen da Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritzak berariazko memoria ekonomikoa egitea. Memoria horretan, proiektatutako arauak sortuko duen kostuaren zenbatespena adieraziko da, gastuak zenbatuta eta arau hori aplikatzeak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan, finantzaketa-iturri eta -moduetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ekonomia- eta araudi-kontrolaren gaineko arauak zehaztutako beste alderdi batzuetan izango duen eragina adierazita, hori guztia XOEPLren 15.5 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.



5.- Dokumentu horiek egin ondoren, dekretu-proiektua aldez aurretik onartu beharko da, Segurtasuneko sailburuaren agindu baten bidez, XOEPLren 15. artikuluan ezarritakoaren arabera.

6.- Hasteko agindua eta onartzeko agindua, arau-proiektuarekin batera, egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko dira, XOEPLren 13.2 eta 16.3 artikuluetan eta Gobernu Kontseiluaren 2025eko maiatzaren 13ko Erabakiaren seigarren apartatuan xedatutakoaren arabera. Erabaki horren bidez, araugintza-xedapen orokorrak egiteko prozedura izapidetzeko oinarritzko eredu (OIE) onartzen da. Argitalpen hori automatikoki jakinaraziko zaie sail guztiei, hala badagokio, ekimenaren zuzentasunari eta egokitasunari buruzko oharrak egin ditzaten.

7.- APAPELen 13.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 7.c) artikuluekin lotuta, lege horretan xedatutako publizitate-agindua betetzeko eta proiektuaren testua euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzeko, Legegunean argitaratuko da. Era berean, espediente osatzen duten memoriak eta txostenak argitaratuko dira.

8.- Aldez aurreko onarpenaren ondoren, testua Eusko Legebiltzarrera bidaliko da, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56. artikulua 1. apartatuan ezarritakoaren arabera, ekainaren 2ko 8/2016 Legeak sartutako aldaketaren ondoren.

9.- Arau-xedapenak egiteko indarrean dagoen prozeduraren arabera, XOEPLren 16. artikulua arabera, bidezkoak izan daitezke erregelamendu bidez sartutako edo funtsezkoak ez diren txosten hauek eta Administrazio Orokorreko sailei egindako kontsulta hauek. Guztiak aldi berean eta hilabeteko epe komun berean egingo dira, xedapenaren testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren egoitza elektronikoan argitaratzen denetik aurrera:

- a) EMAKUNDE – Emakumearen Euskal Erakundearen txostena, generoak garrantzirik ez duela egiaztatzen duena, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 20.6 artikuluan ezarritakoa betetzeko.



- b) Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, xedapen orokorrek euskararen erabileraren normalizazioan zer eragin duten eta hizkuntza arloan indarrean dagoen araudia betetzen duten ala ez argitzeko, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuaren 2. artikuluan eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretuaren 14.2 artikuluan eskatutakoaren arabera.
- c) Gobernu Irekiaren eta Gobernu Onaren Zuzendaritzaren txostena, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 12.1.n) artikulua arabera.
- d) Enpresaren gaineko eraginari buruzko txostena, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan ezarritakoaren arabera. Artikulu horren arabera, «1.Euskal Autonomia Erkidegoak sustatutako edozein arauketa edo arau berri bideratu aurretik, Eusko Jaurlaritzak bere zerbitzu juridikoen bidez ebaluazio-txostena egingo du enpresak sortzearen, abian jartzearen eta haien funtzionamenduen gaineko eraginari buruz». Txosten hori nahitaezkoa da xedapen orokorrak egiteko prozeduran.

Beraz, nahitaezko txostena bada ere, nahikoa izango da arau-eragina aztertzekeo memorian aipatzea, proiektatutako arauaren xedeak ez baitu inolako eraginik enpresen eraketan, abiaraztean eta funtzionamenduan.

- e) Aurrekontu Zuzendaritzaren txostena. Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 313/2024 Dekretuaren 17.1.d) artikulua arabera, Aurrekontu Zuzendaritzari esleitutako eginkizunen artean dago eduki ekonomiko garrantzitsua duten arau-proposamenei, planei, hitzarmenei eta akordioei buruzko txostenak egitea, aurrekontu-inpaktua ebaluatzeko eta dagozkion doikuntza-neurriak proposatzeko, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren 27.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.



- f) Enplegu Publikoko Zuzendaritzaren txostena, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 18.2.a) artikulua zuzendaritza horri emandako eskumena baliatuz, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 17. artikuluekin lotuta.
- g) Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren txostena, Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 313/2024 Dekretuaren 12 a) artikulua ematen dizkion eskumenen arabera.

10.- Dekretu-proiektuaren edukia kontuan hartuta, ez dira beharrezkotzat jotzen entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapideak. Antolamendu-xedapena denez, proiektua bi izapideetatik salbuetsita dago, XOEPLren 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

11.- Ez da beharrezkoa beste administrazio batzuei kontsulta egitea; izan ere, ukitutako administrazio horiek Euskal Zibersegurtasun Agentziaren Administrazio Kontseilua osatzen dute, agentzia hori sortzeko legearen 4. artikuluan arautua, eta kontseilu horren eginkizunen artean daude (ex 5.e) Agentziaren estatutuak onartzea proposatzea, Eusko Jaurlaritzari helarazteko.

12.- XOEPLren 19. artikuluen arabera, nahitaezko eta funtsezko txosten eta irizpen hauek eskatu beharko dira:

- a) Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ekonomiaren eta arauen kontrolari buruzko txostena, Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 313/2024 Dekretuaren 7 a) artikuluan ezarritakoaren arabera, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren III. tituluko IV. kapituluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuan jasotako aurreikuspenei dagokienez.

Txosten hori 15 eguneko epean egin beharko da, Kontrol Ekonomikoko Bulegoan arau-xedapenaren proiektuaren testua eta edukiaren arabera eskatutako dokumentazioa jasotzen direnetik zenbatzen hasita.

Orrialdea: **9 / 12**



- b) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, XOEPLren 25. artikulua araberan eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.c) artikulua aplikatuz.

Azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 26. artikulua xedatu duenez, Batzordearen irizpenak emateko epea entzunaldia aurreikusten duen xedapenean adierazitakoa da, eta, halakorik ezean, bi hilabetekoa.

13.- Ekainaren 2ko 8/2016 Legeak 2. apartatua gehitzen dio Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56. artikuluari. Horren araberan, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikora bidaltzen den dokumentazio bera, aldi berean, Eusko Legebiltzarrera bidali behar da, legebiltzar-taldeek horren berri izan dezaten.

14.- Prozedura osoaren memoria labur bat egingo da, aurrekariak eta egindako izapideak zehaztuta, XOEPLren 24.2 artikuluan ezarritakoa betez.

15.- Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18. artikulua c) letraren araberan, Jaurlaritzari dagokio Eusko Legebiltzarrak emandako legeak garatzeko eta betearazteko erregelamenduak dekretu bidez onartzea.

16.- Dekretu-proiektuaren publizitateari eta argitalpenari dagokienez, XOEPLren 29. artikulua eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 64. artikulua araberan, erregelamendu-arauak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.

ZORTZIGARRENA. Idazketa-sistema.

Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikulua eta XOEPLren 14.5 artikulua araberan, testua bi hizkuntzetan idatzi behar da, araua idazteko prozesu osoan bi hizkuntzen arteko berdintasuna bermatuz. Testuak bi hizkuntzetan idatzita egon beharko du, aldez aurreko onarpena jaso eta instrukzio-fasean izapidetu aurretik.

Era berean, eta XOEPLren 27.3 artikulua araberan, behin betiko onartu eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko diren euskarazko eta gaztelaniazko testu artikulatuen zehaztasuna eta baliokidetasuna bermatzeko, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IZO) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak ziurtagiri bat emango du argitaratu aurretik, euskarazko eta



gaztelaniazko bertsioak zehatzak eta baliokideak direla egiaztatzeko, apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuaren 4.2.d) artikulua araberaz.

BEDERATZIGARRENA. Espedientea izapidetzeko ardura duen organoa.

Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritza arduratuko da proiektu hau bideratzeaz, Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 318/2024 Dekretuaren 19. artikuluan ezarritakoaren arabera.

HAMARGARRENA.- Arauaren egokitasunaren justifikazioa.

Dekretu-proiektu hau ez dago sartuta Urteko Araugintza Planean.

Maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuak Segurtasun Eskema Nazionala (SEN) arautzen du, eta, bertan, sektore publikoko informazio-sistemak babesteko oinarritzko printzipioak eta beharrezko baldintzak ezartzen dira. Era berean, baldintza horiek betetzen direla egiaztatzeko auditoretzak egiteko beharra ezartzen du.

Bestalde, Euskal Zibersegurtasun Agentziaren estatutuak onartzen dituen martxoaren 19ko 34/2024 Dekretuak ez du jasotzen informazio-sistemen auditoretzak egiteko funtzioa.

Testuinguru horretan, Euskal Zibersegurtasun Agentziaren Administrazio Kontseiluak erabaki du Gobernu Kontseiluari proposatzea estatutuak aldatzea, bi helbururekin: alde batetik, Agentziaren eginkizunen artean informazio-sistemen auditoretza sartzea, Segurtasunaren Eskema Nazionala arautzen duen maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuan ezarritako aldizkako auditoretzak egiteko betebeharra betetz; eta, bestetik, Administrazio Kontseilua eta Aholku Kontseilua osatzen duten pertsonak beren ordezkaritza maila bereko beste pertsona bati eskuordetzeko aukera sartzea, organo horien funtzionamenduan eraginkortasun eta malgutasun handiagoa errazteko.

Azaldutakoagatik, eta XOEPLren 13.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako hau

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA.- Hasiara ematea Euskal Zibersegurtasun Agentziaren Estatutuak onartzen dituen martxoaren 19ko 34/2024 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua egiteko prozedurari.



BIGARRENA.- Prozedura hasteko agindu hau Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzara bidaltzea, hori baita proiektua bideratzeko ardura duen organoa.

HIRUGARRENA.- Agindu hau Legegunean (EAEko araudiaren ataria) argitaratuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 13.d) artikuluan eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 39/2013 Legearen 7.c) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Era berean, Eusko Jaurlaritzaren Gardentasunaren Atarian argitaratuko da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 7. artikuluan xedatutakoaren arabera.

LAUGARRENA.- Agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratzea, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13.2 artikuluan ezarritakoaren arabera. Argitalpen hori automatikoki jakinaraziko zaie sail guztiei, hala badagokio, ekimenaren zuzentasunari eta egokitasunari buruzko oharrak egin ditzaten.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren eguna.

Bingen Zupiria Gorostidi

SEGURTASUN SAILBURUA

SEGURTASUNNEKO SAILBURUA